



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
205.zkia . 2007ko abendua

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

EUSKARAREN ALDEKO EKITALDIAK

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Egunko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskoa etxea - Tel. 943 64 33 64
20280 HONDARRIBIA (Giztopia)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00*

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



CLUB NAUTICO HONDARRIBIA

P.º R. Iribarren, s/n - Apartado, 88 - Teléf. 943 642 788 - Fax 943 642 894
e-mail: cnhondarribi@terra.es
20280 HONDARRIBIA



Jostaldi pilotalekuan sentsibilizazio jardunaldia ospatu da

Abenduaren 3an ikasleei zuzendutako sentsibilizazio jardunaldi bilakatu zen Jostaldi pilotalekua. Haur eta gazteei ezinduek kirola egiteko zernolako zailtasunak dituzten erakustea bilatzen du jardunaldi honek, beraenganako errespetua ahal den neurrian handitzeko.

Ikasleek ikusi ahal izan zuten gurgpileko aulki batean ere saski-baloian jokatu daitekeela, baita eskubaloian ere edo tenisean. Talaiaiko ikasleak pozik aritu ziren alde batetik bestera, ezinduta dauden pertsona hauek dituzten zailtasunak zein handiak diren ikusi ahal izan zutelarik.

Udalak urte osoan zehar Foru Aldundiarekin batera lan egiten du ezinduentzako proiektuen alde. Hor daude adibidez hondartzan urtero jartzen den egurrezko pasabidea eta eskola kirolean ere burutzen den lana.

Argazkia: Xabier Sagarzazu



Jardunaldia Jostaldi pilotalekuan egin zen

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK ABENDUAN ETA URTARRILEAN

23- Almajano Mendelu, 26. 943 640068
25- Erauskin San Pedro, 22 943 641018
30- Alameda Harresilanda, 9 943 645798
1- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g 943 642191
6- Erauskin San Pedro 22 943 641018
13- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g 943 642191

TXANDAKO OKINDEGIAK ABENDUAN ETA URTARRILEAN

23- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975
25- Garmendia Portuan 943 641136
30- Martinez Kale Nagusia, 17 943 641212
1- Arratibel Mendelu auzoan 943 641975
6- Garmendia Portuan 943 641136
13- Martinez Kale Nagusia, 17. 943 641212



Udala aireportuaren pista luzatzearen aurka agertu da

Hondarribia- Donostia Aireportua eztabaidarako arrazoia da azken urteotan. Denboraldi honetan eragile, erakunde eta hiritar asko izan dira horri buruzko jarrera adierazi dutenak.

Ez da orain unea arazolari buruzko historia egiteko, baina oso gutxi aurreratu da konponketan. Gu gauden nahasketa egoeraren salaketa egiten dugu, ez baitigu etorkizuna argi ikusten uzten.

Aireportua luzatzeari buruz, eztabaidak jarraitzen duen bitartean, Hondarribian auzo oso bat dago, Mendelu hain zuzen, etorkizuna zein izango den ez dakiena. Bizilagunek ez dakite, hobekuntza edo mantentze-lanei ekin ala ez, gero etxebizitzak ezin saldurik ibiltzeko, azken finean ez dira beren etorkizun eta bizitzaren jabe. Beraien ondoan industria-lariak lanean, ondarearen balioa galdu dutelarik epe motzean. Era berean, urteak daramatzaten jarduerarekin jarraitu behar ote duten zalantzarekin, edo negozioa handitzerik baduten edo zer egin.

Beraz, honen ondorioz behean sinatzen dugun udal talde politiko guztiok honako hau adierazi nahi dugu:

1.- Aireportua luzatzeari buruzko erabakia ez da udal esku-mena, baina axola zaigu eta guri eragiten digu. Gaurko data-



Azaroaren 15ean onartu zen pista luzatzearen aurkako erabakia

rekin ez dago luzapen horrek Mendeluko bizilagun eta industrialariei bereziki eta Hondarribiari orokorrean eragingo liekeen afekzioei buruzko azterketa xeheaturik. Hondarribiko hiritarren interesa defendatzeko gogo nabaria adierazten dugu.

2.- Ez gaude aireportua luzatzeko eskaerarekin ados. Horrek ez du esan nahi "geurekoiak" garenik Gipuzkoako Lurralde Historikoarekiko, eta jaramonik egingo ez diogunik. Euskal erakundeek aireportua "oinarri-zko azpiegituratzat hartzea" analisiarekin ados gaude. Horrexegatik erabaki genuen garai batean Ortzibia Sozietatean parte

hartzea. Gainontzeko erakundeekin batera aireportuaren garapenean parte hartu nahi dugu, baina dauden mugak baztertu gabe. Azterketa lasaia eta azterketa serioa eskatzen dugu aireportuaren bideragarritasunari buruzkoa, zenbait aldagai garrantzitsu ahaztu gabe, adibidez abiadura handiko tren.

3.- Adierazpen instituzional honen berri Sustapen Ministerioari, AENari, Ortzibiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei ematea erabaki dugu.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:



Birgaitze lanak egiten ari dira liburutegi eta artxiboan

Urtarrila ia amaitu arte mantentze-lanak egingo dira Zuloaga Etxean, hain zuen udal liburutegia eta artxibategian. Pasa den astetik, eta lanen lehenengo fasean, bi zerbitzu hauek behin-behineko bulegoak jarri dituzte Udaletxean. Honetaz aparte, udal liburutegia ohiko ordutegian zabalduko ditu bere ateak urtarrilaren 31ra arte.

Hiru aste hauetan, Zuloaga etxeko bigarren solairuko sabaiak konpondu, zenbait gela margotu eta argiteria zaharra hobe eta modernoago batengatik ordezkatzuko dute.

Urtarrilaren 2tik 21era, aldiz, mantentze-lan hauen bigarren fasea burutuko da eta honek udal liburutegia ixtea behartuko du egun horietan.

Zehazki, sabaiak konponduko dira, zenbait gela margotuko dira, argiteria berrituko da ere eta eskaileretan zein Zuloaga etxeko atarian ere hobekuntzak egingo dira.

Lan guzti hauen aurrekontua 80.000 eurokoa da.



Urtarrilaren 2tik 21era Liburutegia itxita egongo da

Hiriko merkataritza indartzeko akordioa aurkeztu da

Udaletxeko Aretot Nagusian aurkeztu zen abenduko lehen astean herriko merkataritzaren eta komertzioen alde egingo duen akordio berria. Bertan izan ziren Aitor Kerejeta alkatea, Eva Urigain HIGER Komertziantea eta Zerbitzuen Elkarteko presidentea, eta Guillermo Echenique, Bidasoa-Bizirik-en kontseilari-delegatua.



Eva Urigain, Aitor Kerejeta eta Guillermo Echenique

"Akordio honen helburua" esan zuen Kerejetak, "hiru erakundeen artean lanean aritzeko ingurune bat sortzea da, Hondarribiko gune komertzialen indartzea bilatu asmoz. Horretarako ekimen pribatuak eta publikoak beharko dira".

Hondarribian dauden sektore ekonomikoen artean, komertzioak %17 hartzen du. %14 eraikuntzara doa, beste %12% ostalaritza eta turismora eta azkenik, %4 industrira. "Sorpresa sortu diguten datuak dira" esan zuen Alkateak. "Hasi dugun bide honetan jarraitzeko indarra ematen digute, azalera handiko eraikinen aurka borrokatzea zaila baita, baita inguruan ditugun gune komertzialen aurka ere".

Urigainen ustetan, "akordio oso garrantzitsua da. Bizi dugun egoera ez da erraza esandako arrazoiengatik. Hori dela eta, merkataritza eta Udalaren arteko elkarlana oso garrantzitsua da eta hortan jarraituko dugu".

Azkenik, Guillermo Echeniquek "Bidasoa Bizirik-ek komertzioen dinamizazioa bilatuko duela" gaineratu zuen Hondarribiko merkataritzaren behatoki bat osatuko dugu, urtean zehar begirada zorrotz bat eskainiko diguna, eta merkataritzaren laguntzarako arituko dena".

2008. urteko lehen sei hilabetetan hiriko komertzioaren ikerketak bat egingo da. Horretarako, datorren urteko aurrekontuetan 42.000 euro gordeko dira.

moda a-dos

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69

ZABALA

CAFETERIA

San Pedro Kalea 8
Hondarribia
Tfn. 943 642736



Hondarribiar sukaldariak Donostiako Kursaaletan



Herriko zenbait sukaldarik parte hartu zuen Kursaaletan ekitaldian

Hondarribiko lau jatetxetako beste hainbat sukaldari, Manu Thalamas (Enbata), Bixente Muñoz (Gran Sol), Julio Rebolleda (Txantxangorri) eta Iñaki Berges (Itsaspe) Donostiako Kursaal-en bildu ziren "Gastronomiaren onena" izeneko kongresuan, bertoko baratzak eta txipiroien bertuteak azaltzeko asmoz.

Lau sukaldariek bere hitzaldia bi zatitan banatu zuten. Lehenean, pintxo bat egin zuten jendearen aurrean, eta bigarreanean, bi errezeta aurkeztu zituzten, barazkiak eta txipiroiak zirelarik errezetaren protagonistak.

Pintxoaren garrantzia azpimarratzeaz gain, Hondarribiko produktuen kalitatea goraipatu zuten sukaldariek, "Gure Baratza" ekimenak orain artean izan dituen abantailei ekimena atereaz.

Denon artean, senegaldarrekin senidetze festa



*Ekitaldia San Pedro kalean ospatu zen
Argazkia: Xabier Sagarzazu*

Jende askok parte hartu zuen azaroaren amaieran San Pedro kalean, Denon Artean elkarteak antolatutako senegaldar kulturarekiko senidetze festa. Hondarribiar zein bisitariek, San Pedro kalean jarritako karpan, eguerdian, Afrikako herrialde honetako jan-edanak dastatzeko aukera izan zuten.

Bazkalostean, Senegalgo musika eta dantza entzun eta ikusi ahal izan ziren eta *djembe* eta ilekorda tailerrak egin zituzten. Ekintza honen helburua, afrikar etorkinen eta bertakoen arteko harremana bultzatu eta Senegalgo kultura ezagutzera ematea izan zen.

Goxoki abesbatzaren deialdia

Goxoki abesbatzako zuzendaritzak gonbidapen zabala egin du datorren Eguberri eta Urte Zahar egunetan egingo dituzten saioetan parte hartzeko. Orotara lau entsegu osatu behar dituzte. Lehenegoa azaroaren 30ean izan zen Itsas Etxeko areto nagusian. Gainerako saioak, aldiz, abenduaren 7, 14 eta 21ean burutuko dira.



Decoración
de interiores

Proyectos

Obras

Reformas

1^{er} del Faro, 5
Tel.: 943 64 38 38
Fax.: 943 64 41 20
Apdo. 149
20280 Hondarribia
e-mail: seska@euskalnet.net

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58



Olentzero eta gabon kanta lehiaketak zabaldu dira

Udaleko Kultura Sailak, 2007ko Eguberri jaiak direla eta, Olentzeron irudia eta gabon-kantak mantentzeko asmotan, Olentzero eta Gabon-kanten lehiaketak antolatu dira aurten ere.

Jarduera hauetan herriko taldeek edo abesbatzak parte har dezakete. Taldeak gutxienez hogeit hamar pertsona osatutakoak izan beharko dira eta partaideen gehiengoa 16 urtetik gorakoa izango delarik. Abenduaren 24an izango dira, arratsaldeko seietan Gipuzkoa Plazan (eguraldi txarra egiten badu, Udaletxeko arkupean egingo dira).

Parte hartu nahi duten guztiek eskaera orria BAZen aurkeztu beharko dute, abenduaren 19ko 13:00 orduak baino lehen eta bertan zehaztu beharko da taldea Gabon-kanta lehiaketara bakarrik edo bietara aurkezten den.

Talde bakoitzak euskarazko bi gabon-kanta abestuko ditu, bata Olentzeroa eta bestea aukera librekoa. Olentzeroarekin aurkezten diren talde bakoitzak 600,00 € jasoko ditu eta gabon-kanta jaialdian bakarrik parte hartzen dutenek 250,00 €ko ordain saria jasoko dute.

Kontsumo baxuko gabonetako argiak piztu dira

Pasa den urtean gabonetako argi berriak estreinatu ziren. Hiritar askorentzat oso erabaki egokia izan zen, kontsumo baxuko argiak erabili baitziren, energia aurrezteko eta kontsumismoari etenak jartzeko politikarekin jarraitzeko asmotan.

Aitor Kerejeta alkatean onartu duenez "beste herrietan orain hasi dira neurri hauek hartzen eta guk jadanik iazko esperientzia daukagu. Gainera, ez dugu bakarrik Gabonetan egitea nahi, eta urte osoan zehar kutsakorrak ez diren argiztapenak erabiltzea da gure asmoa". Gabonetako argiztapenari dagokionez, Udalak egiten duen esfortzua dendari eta hiritarrek egiten dutenari gehitu

Haurren Olentzero lehiaketa abenduaren 24an

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute gutxienez zortzi eta gehienez hamabost neska-mutilez osatutako herriko taldeek, partaide guztiek 16 urte bete gabekoak izan beharko dute eta bakoitzak bere taldearen izena agerian eraman beharko du.

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten talde guztiek izena eman beharko dute Gazte Informazio Bulegoan (San Pedro kalea, 15), abenduaren 14a bitarte.

Taldeek epaimahai baten aurrean aurkeztu beharko dituzte beren Olentzero, epaimahaia Santiago Kanean egongo da, goizeko 10:00etatik 11:30ak bitarte, "Olentzero" abestea ezinbestekoa izango da. Epaimahaikideak kontuan hartuko duen bakarra, Olentzeroren (irudiaren) kalitate artistikoa izango da, beti ere partaideen adina kontuan hartuz.

Gabonsariak 60,00 € eta 120,00 € bitartekoak izango dira eta banaketa Gipuzkoa Plazan egingo da 12:30etan. Talde bakoitzak bere Olentzerorekin bertan egon beharko du.



Olentzeroren irudi bat



BARRI
HONDARRIBI

AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102



Baserrietako hirugarren adinekoiei buruzko azterketa abian da

Gizarte Ongizate Departamentuak INEMen laguntzarekin batera, Enplegu Sustapen Programaren barruan, azterketa bat egitea erabaki du, Hondarribiko baserri-ingurunean bizi diren hirugarren adinekoen habitatarei eta egoerari habitatarei buruzkoa. Azterketa horren bidez honako hau lortuko da:

- Baserri-ingurune Hirugarren adinekoen multzoak gaur egun duen mendekotasun eta arreta beharra ezagutzea.
- Aurkitutako egoerak Gizarte Ongizate Departamentuak aztertu eta beharrezkoa den arreta ematea.
- Egoerak aurreikusi eta arreta emateko beharrezkoak diren baliabideak abian jartzea.

Helburu honekin eta aldi berean, 3. adinekoentzat dauden baliabideen berri emateko eta bideratzeko baserri-ingurunean bizi diren 65 urte baino zaharragoak diren pertsonen bitartekari egingo zaizkie beren etxetara abendutik aurrera, eta horretaz arduratuko dena Amaia Ribate Odriozola izango da.

Udalak Behemendi elkartearen laguntza izango du; elkarte honek Donostialdea eta Bidasoako baserri-ingurunearen garapenaren alde lan egiten baitu. Gainera horrelako azterketetan elkarte honek esperientzia handia du, eta berekin batera beharrak aztertu, baliabide berriak sortu eta emaitzen berri dagokien erakunde eta elkarteekin emango zaie.

Baserri-ingurunean bizi diren hirugarren adineko guztien eskutitz bat bidaliko zaie bisitaren arrazoia azalduz, eta geroago telefonoz deituko zaie bisitaren eguna eta ordua jartzeko.



Baserrietan bizi diren adinekoiei zuzentzen zaie ekimena

'SOS Madalen karrika' eskaileren aurka dago



Madalen karrikako bizilagunek bere balkoiak gisa honetara atondu dituzte

Udalak hiriko auzoen arteko irisgarritasuna bermatu nahian, Akartegi eta Portu auzoen arteko eskailera mekanikoak instalatzeko proiektuaren proposamena egin zuen duela hilabete batzuk. EAJ alderdiak hauteskunde kanpainan hala hitz eman zuen, Aitor Kerejeta alkate bilakatu aurretik, maiatzaren 24ean, Udal Osoko Bilkuran onartu egin zen puntu hau.

Hala ere, proiektuak Madalen karrikako auzoaren kontrako postura topatu du. "SOS Madalen karrika" koordinadora sortu dute eta mila sinadura pasatxo bildu dituzte proiektuaren aurka.

Gauzak honela, auzoko balkoietatik proiektuaren kontrako kartelak zintzilikatu zituzten. "Lajazia eskilerak dagozten bezala", "Badira beste aukerak", "Badakizia gure iritzia?" edota "Madalen karrikari xarma ez kendu" diotenak.

Baina bizilagunek ez dute, ez eskailerarik, ezta igogailurik onartu nahi. "Beste zazpi aurreproiektuak ikusi ditugu, eta badago bat igogailua bakarrik duena, baina bertara iristeko, karkaba bat egin beharko litzateke Madalen karrikan bertan. Ez dute Madaleneko eskaileretatik zenbat jende pasatzen den aztertu, ez eta Portura egiteko gainontzeko eskaileretan inolako azterketarik egin ere" dio bozeramale batek.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3



2008ko aurrekontua 22,02 milioi eurokoa izango da

Aitor Kerejeta alkatea eta Ion Elizalde lehen alkateordeak parte hartu zuten Udaletxeko Areto Nagusian bilakatu zen 2008. urteko aurrekontuaren laburpen baten aurkezpeneari. Aurrekontu hau datorren abenduaren 20an igaroko da Osoko Bilkuratik. Orotara, 22.206.056 eurokoa da kopurua, iaz baino %10,37 gehiago.

Kerejetak esan zuenez "EAJ eta EA alderdiek hain asmo antzeko eta ikuspuntu igualtsuak izatea oso pozgarria da gurtzat. Ideia aldetik elkartasun nabaria erakutsi dugu eta hori ona da Hondarribiarentzat".

Bien bitartean, Elizalderen hitzetan "bi alderdien aldetik lan ona egin dugu. Gainera, eskertu beharrekoa da azken lau urte haue-

tako korporazioak egindako lana, aurrekontu osasuntsua utzi baitigu, datorren urtekoa egiteko ezinbestekoa dena".

Bi zinegotzien arabera, "aurrekontu honetan garrantzitsua da gastu sozialak, kulturalak, euskararen aldeko apostua eta nola ez, inbertsioak aipatzea. Datorren urtean Hondarribian 9,2 milioi euro inbertituko ditugu, horietatik 6,2 urte haseratik eta beste 2,6, apirilean iazko aurrekontuaren kreditu aldaketa burutzen denean".

Datorren ostegunean, abenduaren 20an, aurrekontua onartzea aurreikusita dagoen Osoko Bilkura ospatuko da. Gero, urtarilean, zinegotzi bakoitzak bere departamentuaren lana eta aurrekontuak azalduko ditu.



Aitor Kerejeta alkatea eta Ion Elizalde alkateordeak egin zuten aurrekontuaren laburpenaren aurkezpena. Han eman ziren datuen artean, Futbol Elkartearen proiektuarentzat 12.000 gorde direla ikus ahal izan zen



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28



Musika Eskolaren eraikinaren erabakia Eguberrien ostean hartuko da



Eraikinaren birgaitze lanak 2008an hasiko dira

Musika Eskolaren eraikin berriaren gaia konponbidean da. Lehiaketarako deialdia duela hilabete batzuk egin zen, ia hogeita izan zirelarik aurkeztutako proiektuak. Denda kalean dagoen etxea zabaltzeko egingo da etorkizunean, aurrean daukan berdegunea aprobetxatuz. Horrela, Musika Eskola berria, Musika Banda eta Txistularien Bandaren egoitza izango da, orain artean bezala, eta 150 pertsonentzako kontzertu gela bat izango du.

Aitor Kerejetak, alkateak, azken erabakia "Eguberriak iritsi aurretik" hartuko dela esan du. "Hala ere oraindik prozesua luzea da, proiektua aukeratu, jakinarazi, beharrezkoak diren epeak errespetatuz, eta noski, proiektua garatzea".

Hori dela eta, gutxienez beste bi urtetan musika eraikinaren erabiltzaileek dauden bezala jarraitu beharko dute, horien artean Kasino Zaharraren jardinetan dauden metalezko eraikinak eta bertan musika ikasten duten gazteak.

"Gomendatzen dizut" lehiaketaren irabazlea ezagutzen da



Argazkiaren erdian dagoen Ignacio Alvarez de Arcaya izan da lehiaketaren irabazlea

Gazte Informazio Bulegoak 'Aizue Lehiaketa' irailean jarri duten abian. Helburua oporretako gomendioak jasotzea, hau da, bakoitzaren aisialdi edo oporraldian ezagututako lekuaren berri jasotzea zen, ondoren beste bidaiarientzat erabilgarria izan dadin.

Epea igarota, eta zozketa burutu ondoren, sariduna Ignacio Alvarez de Arcaya Larrarte hondarribiarra izan da. Bere gomendioaren izenburua "Brighton (Inglatera)" da. Berari eta parte hartu duten guztiei, zorionak eta eskerrik asko!

Gazte Informazio Bulegokoek gogorarazten dute urtean zehar ere gomendioak sartu ahal direla.

Aise
BIDASOA

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 643 557**



Psilocybenea Aste Santurako amaituko da



Amutalden dagoen eraikina obretan dago uztaila geroztik

Psilocybanean pasa den uztailean hasi ziren birgaitze lanak aurrera doaz. Construcciones Oralur S.L. orduan hasi zen lanekin, eta 2008. urteko Aste Santurako amaituta egotea espero da.

Une hauetan birgaitze lanak kableak eta elektrizitatearen arloan murgilduta daude. Hauek amaitzen direnean, ekipamenduak, grabaziorako gela eta Amutaldeko eraikina banatzen den gune guztien egokitzearekin hasiko da.

Gazteriko zinegotzi den Maite Pelaezek gogoratu duenez, "proiektuan etxearen aurrekaldearen birgaitzea, gaur egun dagoen entsaioetarako aretoa hobetu eta kontzertu zein grabazioetarako areto bat sortzea aurreikusten da".

Aitor Kerejeta alkateak duela gutxi egin zuen bisita, eta obrak bide onetik doazela ikusi ahal izan zuen. "2008ko martxorako amaituta egotea espero dut, eta orduan Psilocybe elkartearekin hitzarmen bat sinatuko dugu eraikinaren erabilera finkatzeko".

Construcciones Oralur enpresa egiten ari da eraikinaren barne eta kanpo aldeko lan, eta horretarako aurrekontua 374.409,51 eurokoa da. Kopuru honi 91.500 euro gehitu behar zaizkio, makinan, argiztapen, grabazio, kable eta zuzeneko soinua finkatzeko. Lan hauen ardura Kaskalbel Soinu S.L enpresari dagokio.

Kaian dauden ontziek batz best 8 metro neurtzen dute




Kirol Kaiaren irudi bat

Hondarribiko Kirol Kaian dauden ontzien luzera media 8 metrokoa da. Hala diote behintzat Euskadiko Kirol Portuak erakundeak egin duen azterketa baten datuek. Datu hauen arabera, itsas olgetarako ontziek izan ohi duten luzera gainditzen dute Hondarribikoek. Luzera 6-7 metro ingurukoa da.

Hirian daukagun Kirol Kaiak 646 ontzi dauzka gaur egun. Ondorioz, Euskal Herrian Euskadiko Kirol Portua enpresak kudeatzen dituenen artean handiena dugu: Donostiakoak 375 dauzka, Bermeokoak 346, Orioko kirol kaiak 294 eta azkenik, Getariakoak 290.

Hondarribian sortu den zonalde berri honetan egin diren inbertsioak 19 milioi eurora heldu dira. Horrek, zerbitzu eta ekipamendu egokienak izatea ekarri du, bai ontziak dituzten erabiltzaileen zat, eta nola ez, denbora pasa hurbiltzen direnentzat eta bertako merkatal zerbitzuak erabili nahi dituztenentzat.



Jose Javier Albisuk XXI. mendeko pilota aztertu du liburu batean

Jose Javier Albisu historialari nafarrak azken urteetako esku pilotako albiste eta gertakizunak bildu ditu "Esku pilota XXI. mendean" liburuan. Aurretik beste zazpi liburu argitaratutakoa da, sei erremontearen inguruan eta beste bat Nafarroako pilotariei buruzkoa. Bitan joaten da astero frontoira, ostegunetan Hernaniko Galarretara, eta larunbatetan Iruñako Euskal Jaira. Gipuzkoara etorri den ostegunetako batean egon gara berarekin, eta luze hitz egin pilotaren egoera eta etorkizunari buruz.

Nola bururatu zitzaizun XXI. mendeko pilotari buruzko liburu bat idaztea?

Erremonteari buruz idazten ari nintzen beste batekin batera egin nuen. Diziplina honetan urte guzti hauetan gertatu dena, asko dela, euskarri batean gordeta egotea beharrezkoa dela uste nuen. Horrela, kronologia bat jarraituz, eskuz binakako, manomanista, lau t'erdiko txapelketak jorratzen dira, baita jaialdi nagusienak ere, San Fermin, Aste Nagusia, San Mateo, Zarautz...

Zenbait pilotari historikoren berri ematen duzu.

Bai. Baina ez bakarrik pilotariak, betiko botileroak, frontoi mitikoak...

Hor agertzen dira Ogeta, Atano III, Fernando Tapia, Eibarko Aste-lenaren 100 urteak... Liburuaren azken orrialdeetan eskupilotaren unibertsitatea deitu dudana koadro bat dago, manomanista irabazi duten pilotari guztien orla bat, bakoitza bere argazkiarekin eta garaipen urtearekin. Amaitzeko, Mugaireko jenioaren agerpenaren berri ematen dut, Mikel Goñi.

Orain arte erremonteari buruz idatzi duzu. Pilotari buruz gehiago aterako al da?

Bai, beste lau edo bost badituz buruan. Denboran atzera eginda aterako diren liburuak dira. Hurrengo 1970-1999 urteak jasoko dituen argitalpena izango da, pilotaren urrezko arotzat har


AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

TINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA



keguna hain zuzen.

Zer moduzko harrera izan du liburu berriak?

Nahiko ona orain artean. Hondarribian irailaren 11n aurkeztu genuen, jaietan ospatzen den pilota partidaren aurretik. Pasa den azaroaren 15ean egin genuen aurkezpena Errioxan, eta han ere, harrera oso ona izan du, gehienbat liburuan bertoko bi pilotari handiak agertzen direlako, Titin eta Barberito I.

Zer nolakoa da pilotaren egoera?

Oso ona. Prentsak tratamendu ona ematen dio pilotari, eta horrek oso eragin positiboa dauka. Lastima da herramientak ez daukala hainbesteko oihartzunik prentsan, eta zintzilik geratzen ari dela. Pilotari dagokienez, modan dagoen kirola da, eta pilotari gazte asko daude bultza egiten. Adibidez, Olaetxea izeneko gazte bat oso ongi dator. Etorkizunean asko entzungo dugun abizen bat da.

Jostaldi pilotalekua bisitatuko zenuen. Zer moduz geratu da?

Oso ongi utzi dute birgaitze lanen ondoren. Polita eta egokia da pilotan, palan, zestan... aritzeko, eta gainera lan ona egiten ari dira bertan. Ia horrela jarraitzen duten.



Zaila al da esku pilota profesionalaren zirkuituan sartzea?

Jose Javier Albisu, ezkerretik hasita bigarrena, liburuaren aurkezpen egunean

Ez da erreza, ez. Hala ere ez dakit komenigarria den. Ni oso purista naiz kasu hauetan. Niri esku pilota frontoi txikietan jokatzeari gustatzen zait, eta herramienta aldez, frontoi luzeetan. Hala behar duela iruditzen zait. Hala ere hau nire iritzia da.

"Esku pilota XXI. mendean" liburuak irailaren 11n aurkeztu zen Jostaldi pilotalekuan jaietan jokatu zen pilota partidaren aurretik. Haren berri eman genuen aldizkarian, baina hilabete bi igaro ondoren hark izan duen eboluzioa jakitea interesgarria iruditzen zaigu. Pilotaren jarraitzaile garen guztiok irakurri beharreko liburu bat da. Datozen hilabeteetan XX. mendeko esku pilotari buruz argitalpen gehiago ikusiko ditugu. Erne egongo gara!

Unai Ortiz
kiropodia - quiropodia
ortopodologia - ortopodologia
ordenagailu bidezko miaketa
biomekanikoa
exploración biomecánica
computerizada

Matxin de Arzu 10. 2. bajo
20.260 HONDARRIBIA
Tel: 943 111 946
www.unaipodologos.com

EUSKO-MEKO

**Boogies
QUADS
125 cc**

1.690 €

1.290 €

Txiplao nº 7 - Telf 639 676 676
Hondarribia



Etor-Aro

Udazkenak bere hirutatik biko ibilaldia egiten duenarekin batera "ETOR-AROA" atejoka sartzen zaigu sukaldera. Elizako joan-etorriekin zerikusia duen garaia da, bai, "ETOR-ARO" deitzen dugun garaialdi hau.

Izenaren jatorria, latinetik datorrena izango da inondik ere. "ADVENTUS", hitzak, berez, etorrera esan nahi du.

Guk, euskeraz, "ETOR" hitzari "AROA" erantsi diogu, etorreraren garaialdiari begira.

Eguberri-misterioari begira ari naiz une honetan.

Norbait etorriko zenaren itxaropenean bizi izan zeneko denboraldi hura, "ETOR-ARO" alegia, bukatua eta burutua da.

Beste alde, latinezko hitza "ADVENTUS" hori, guk, euskaldunok, urtearen azkeneko hilabeteari deitzeko erabiltzen dugu: "ABENDUA".

Nere iritziz, ordea, "ABENDUA" eta "ETOR -ARO" hitzek, Elizetan ospatzen denaren gainetik, esanahi sinboliko zabalagoa darama.

Mundu osoa eta herrialde guztiak, beti eta etenik gabeko "ABENDUAN" bizi garela esango nuke.

Oraindik eskura ez ditugun, eta, amets-zelaietan loratuak daramatzagun gose-egarriak aseko dituzten aurrerapenak noiz etorriko direnaren zai gaudeneko denbora, "ABENDUA" da.

Gauzak zabalean hartuz, garai batean "amets" ziren eta orain eskuratuak ditugun aurrerapenen etekinen "ABENDUA" bukatu da. Gabonetako kantu zaharrak Jesusen jaiotzari buruz dioten hura, "... DESEO GENUEN IRITSI GENUEN...", beste alorretan ere gertatu da iadanik.

Zeren zai gaudeneko "ABENDUAN" aurkitzen ote gara, bada, gaurregun? Besteak beste, "PAKEARI BURUZ" "ABENDUALDIAN" gaudela esango nuke, izan ere, bere osotasunean "PAKEA" ez bait da garaitu gure artean.

Egia esan, Gabon aldiko oihu nagusia dugu... "ETA PAKEA LU-

RREAN BORONDATE ONEKO GIZONEI".

Gizadi osoarentzat ONDASUN NAGUSIA da "PAKEA". Berori bideak egokitasunez antolatzen ari bagintzaizkio, "ABENDUAREN" edo "ETOR-AROAREN" ateak zabalik izango genituzke.

Bideak antolatu orde, oztopoak ere jarri liezaizkioke "PAKEARI", eta orduan, "PAKEA", gero eta hurbillago dugulakoaren itxaropena, KEZKA ILUN bihurtuko litzateke.

Nik badakit, pentsatzen hutsa ere gogorra dela, baina buruak ez du barkatzen, sortzen zaizkion galderei erantzun jator eta garbi bat ematen ez bazaio.

"...BORONDATE ONEKO..." AIPATU DUT LEHEN.

Beharrezko da BORONDATEA. Baina, "BORONDATE ON" hutsa ez da ski. BORONDATEAK, bere aldetik, bi etsai haundi dituela esango nuke. BATA: "EAZA", hau da: BORONDATERIK "EZA". BESTEA: "TXARRA", hau da: BORONDATE "TXARRA".

ETA hauxe da nere susmua: "EZA" eta "TXARRA" biek ez ote dabil-tzan elkarrekin "DANTZA LOTUAN".

Ez da zilegi, nagu gorrian eskuak berotu ahal izateko, amonak piztu duen sua, auzoko morroiak, etorrita, sutegia ur-putzu eginik utz dezan, berak, bere etxean, ez txotxik, ez enborrik ez duelako. Egia ezkutatu eta gezurraren makila agintean jartzeak, bide laburreko itxaropena ernalarazi ahal izango du.

Hodei ilunez zeru-sapaia estalia dagoenean ere, atzetik aguzki aritsua sutan dagoela jakin beharko genuke. Negua ere, udaberriak zapaltzen du.

Norbaitek hala omen dioenez, aurtengo negua "ELURTSU" izango omen da. "ELUR URTE, GARI URTE"

Isiltasun apalean iraun beza, neguaren estalpean, nekazari trebearen eskutik, AZAROAN, lur mardulean ereina den hazi apal horrek.

Irrifar horiz lehertuko diren gari-soroek begitira, "ETOR-ARO" itxaropentsuaren zelaien etzango naiz.



Martin Iturbe

TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA

Foru Kalea z/g

PUB
Kai zahar
Almirante Alonso, 12

kai zahar

ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BUILDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAIRUA
ETA GORDELEKUA

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN" !!!

Hondarribia Arraun Elkartea - Tel. 943 64 01 61 - 20280 Hondarribia



Goiko Errotako interpretazio zentroaren proiektua aurkeztu da



Goiko Errotako eraikinetako baten irudia. Proiektuarekin hasi aurretik birgaitze lanak egingo dira

Abenduaren 3an aurkeztu zen jendaurrean Jaitzubia auzoko Goiko Errotan egitekoa den Naturaren Interpretazio Zentroaren proiektua. Aurkezpen ekitaldian Aitor Kerejeta alkateak eta Goio Bastidak eta Elias Irastorza 'Capitan Tximista' enpresaren ordezkariak parte hartu zuten.

Kerejeta alkateak esan zuenez, "proiektu garailea Udalak deitu tako lehiaketara aurkeztu zen hiru proiektuetako bat izan zen. Lehen deialdira ez zen inor azaldu. Bidasoa Bizirik-en aholkularitza jaso du proiektuak".

Elias Irastorza enpresako ordezkarietako bat da. Proiektuaren ardatzak eman zituen. "Kontuan hartzeko moduko Interpretazio Zentro bat egingo dugu. Hondarribiak ez du orain artean horrelakorik, eta oso beharrezkoa dela uste dugu. Tokiak aukera handiak eskaintzen ditu, eta indar handiz ekingo diogu. Capitan Tximistak zenbait betebeharrak izango ditu Goiko Errotako Naturaren Interpretazio Zentroarekiko. Horien artean, bertan modu finkoan bi pertsonak

bizi beharko dute, bigarren solairuan atonduko den aterpetxeaz arduratzea egongo baita, beheko aldean egongo den interpretazio gunearekin batera".

Goio Bastidak bitartean, "errotak daukan garrantzia gehitu zuen. Oso elemento garrantzitsua da, eta errotaren funtzioa bertara hurbilduko diren ikasle, talde edota familiei erakustea da gure asmoa".



Goio Bastida, Aitor Kerejeta eta Elias Irastorza

Proiektuaren helburu nagusia, Hondarribiko ondarearen zati den elementu hau erabilgarria izatea da, helburu didaktiko nabari batekin. Naturarekiko errespetua gordetzea bilatu nahi du Udalak eta Capitan Tximista enpresak.

Aitor Kerejetak, alkateak, azaldu zuenez, "Goiko Errotan egokitze lanak egin beharko dira eta hauek lau edo bost hilabete inguruko iraupena izango dute. 300.000 euroko aurrekontua prest daukagu horretarako".



Beste urte bat joan zaigu



2007an Klean Kantuz hileko lehen igandean bildu da San Pedro klean. Ekitaldi goxo batean bilakatu da.

Abenduarekin batera, urtearen amaiera etortzen da. Azken urteotan aldizkarian urte osoan gertatu diren ekitaldi garrantzitsu edo esanguratsuenen laburpen-txo bat egiten dugu, irudiz osatutako laburpena. Urtariletik abendura gertatu diren zenbait gertakari biltzen ditugu orrialde hauetan. Ziuraski batzuentzat beste ekitaldi batzuk jaso behar-ko lirateke, eta beste irakurle batek aldatu egingo lituzke, baina gizarteko alor desberdinak jasotzen saiatu gara eta hauek dira eskaintzen dizkizuegunak.

2008an aurtien Hondarribian egin diren ekitaldi guztiak errepikatzen badira, ez dira gutxi izango. Aldizkari honetatik geratzen zaigun gauza bakarra, gabon zoriontsuak igarotzea, eta urte berria ahalik eta onena izatea da.



Ezkerrean goian, EAJ eta EA alderdiek hauteskundeak igarota sinatu zuten akordioaren une bat. Behean, datozen lau urteetan hiriaren agintea izango duten zinegotziak. Kultura aldetik, ez dira ekitaldirik falta izan, Itziar Mendizabal, Sandra Cuesta eta Ainhoa Izagirrek eskainitako ikuskizuna adibidez. Behean, jadanik abian dagoen Loraitzeko haurtzaindegia nola izango den ikus dezakegu.





Uztailaren 11n egin zen Alkartasuna frontoiaren irekiera ofiziala

Otsailean Inauteriak ospatu ziren, jende askok parte hartzen du igande goizeko desfilean.



Uztailaren 25ean Kutxa Aroa Blancok eraman zuen.



Udaz geroztik, Erreginaren Baluarte bisitagarria da



Urte haseran, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Arraun Elkarteko arraunlari eta ordezkariak jaso zituen.



Apirilean herrian sailhesbide berria ireki zen. Denborak erakutsi du oso beharrezkoa zela.



Neguko jardunaldiak amaitzera doaz

Argazkiak: Floren Portu

Dakizuenenez, Udaleko Euskara Zerbi-tzuak urtero Neguko Jardunaldiak antolatzen ditu. Euskarazko aldizkarian nahitaez informatu behar dugu honetaz, baina ez gure beharra delako, oso arrakastatsuak direlako baizik. Ikusi besterik ez da behar zenbat jendeke parte hartzen duen ekitaldi desberdinetan.

Azaroan eta abenduan egiten dira, eta haur, gazte zein helduentzat zuzentzen diren jarduera hauek hiriko gune desberdinetan garatzen dira. Aurten Jostaldi pilotalekuan, Hondartza kiroldegia, Amuteko bizilagunen elkarteko lokalean, Santiago kalean... burutu dira. Aldizkaria itxi genuenean, bi ekitaldi falta ziren ospatzeko, hurrengo alean emango dugu haien berri.



Haur, gazte zein helduentzat prestatzen dira jarduerak Euskara Zerbitzutik. Aurten lehen aldiz Kalean Kantuz ondoren bazkari herrikoia bat ospatu zen, eta 150 lagun bildu zen Jostaldi pilotalekuan. Haur eta gazteek, txirrindan ibili, pailazoez gozatu eta ongi pasatzeko parada ezinhobeia izan dute.





Arraun Elkarteak aurtengo banderak bedeinkatu zituen



Arraun Elkarteak osatzen duten kirolari denek hartzen dute parte abenduaren lehen igandean ospatzen den ekitaldian

Abenduko lehen igandean Hondarribia Arraun Elkarteak urteroko ekitaldia errepikatu zuen. Banderen bedeinkapena eta arraunlari, ordezkari, zuzendari, udal ordezkari, eta nola ez, jarraitzaileak bildu zituen bazkari bikain bat, ohi bezala, Ardora jatetxean.

Ekitaldia Arraun Elkartearen hasi zen. Handik, Abiyuan Txarangaren atzetik, arraunlariak, gazte zein heldu, zuzendaritza batzordea, eta Izaskun Eizagirre aurtengo garaipenen amabitxia, bere seme

Osertz eta Manex hurbil zituelarik. Udaletxearen aurrez aurre, zinegotzi eta alkatea bildu ziren prozesiora eta handik, Parrokiako mezara joan ziren, banderak bedeinkatzera.

Hernandadera jaitsi ondoren, jai egunaren amaiera bazkari batekin eman zitzaion. Bertan, Ion Parra eta Eñaut Labaien urrezko domina eman zitzaion, Elkartearen hamar urte arraunean eramate-agatik. Zorionak denei!

Futbol taldea burua altxatzen ari da

Hondarribia Futbol Elkarte-ko lehen taldea, Gorengo Mailako talderik beterranoena, hasi da oker ekin zuen bidea zuzentzen. Fernando Urtizberek zuzentzen duen taldeak lehen partidak galdu egin zituen, nahiz eta joko ona egin. Horren ondorioz, haseratik sailkapenaren atzekaldean geratu zen.

Azaroaren erdialdera partida pare bat irabazi eta apurka sailkapenean aurrera egin zuen. Hala ere, ber-

dintasun handia dago eta asteburu batean porrot egiten duenean, berriz ere atzera egiten du.

Aurten, Hondarribia Futbol Elkarteak taldean herriko jokalarien aldeko apostua egin du. Ondorioz, 25 jokalarietatik, 22 dira Hondarribikoak. Gainera, jokalarizaharrenak 25 urte ditu. Epe luzerako apostu baten aurrean gaude.



Gorengo mailako taldeko jokalarien %95 hondarribiarra da

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 4846 - 20280 HONDARRIBIA





Kofradiak txikitua banatu du aurten ere

750 izan dira jaso dutenak, arrantzale, mariñel ohi eta alargunen artean

Urteroko ohiturari jarraituz, Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak Gabonetako txikitua ren banaketa burutu zuen abenduaren 11n, Ramon Iribarren kalean dagoen Bentan. Onuradunak 750 pertsona inguru dira, egungo arrantzale, mariñel ohi eta alargunen artean. Denek bosna kilo bakailao eta zazpina litro olio jasoko dituzte aurten ere.

Goizeko bederatzieta ireki ziren ateak txikitua jasotzeko, eta asko ziren eguerdirako zegokien zatia jaso zutenak. Dena ongi atera zedin, egun arrantzaleak direnak, Norberto Emazabel Abad Nagusia buru zutelarik, goizeko seiretan hasi ziren lanean.



Kofradiako arrantzaleek gogor lan egin zuten Txikitua banatzeko. Onuradunek biziki eskertzen dute jasotako oparia.



Gabonen inguruan Kofradiatik egiten den opari honen banaketaren lehen idatzitako erreferentzia Gerra Zibil garaikoa da, baina hala ere, gauza ziurra da XX. mende hasieran egiten zela. Urte gogor haietan Hondarribiko arrantzaleek bizi zituzten egoera latzak xamurtzeko balio zuen Txikituak.

ARRANTZALE KOFRANDIAN AZAROAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (*Trachurus trachurus*): 794,60 kilo.
 Atun moja (*Thunnus obesus*): 4.446,20 kilo.
 Makarela (*Scomber japonicus*): 172.047,70 kilo.
 Sardina (*Sardina pilchardus*): 42.096,80 kilo.
 Lanpo (*Euthynnus pelamis*): 32,40 kilo.
 Dorada edo Urraburu (*Sparus aurata*): 561,70 kilo.
 Boga (*Boops boops*): 1.056,80 kilo.
 Zapatari (*Gerris*): 8,20 kilo.
 Erla (*Lithognathus mormirus*): 294,80 kilo.
 Korrokoi (*Chelon Labrosus*): 75,90 kilo.
 Muxar handia (*Diplodus sargus*): 64,30 kilo.
 Bestelakoak: 870,20 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

La **bacaladera** S.A.U.





Arrantzaleen etxeak eraiki zirenetik mende erdi igaro da



Koldo Ortega

Datozen hileotan desagertuko da hiri erditik mende erdi duen gune bat. Arrantzaleen Kofradiaren etxebizitzak guztiontzat dira ezagunak, baina etorkizun hurbilean desagertu egingo dira. Barnekaldean zeuden xaiak bota egin ziren etxebizitzak egiteko, eta hauek aurrerratuagoak daudenean, kanpoko lerroko etxebizitzak bota egingo dira, bertan gehiago egin ahal izateko.



Zer dakigu arrantzaleen etxebizitzak hauei buruz?

Arrantzaleen etxeak 1958ko ekainaren 29an ireki ziren ofizialki, San Pedro egunez. Beraz, 2008an mende erdi beteko dute, edo lukete. Egun hartako eguerdiko ordubatean autoritate eta gonbidatu guztiak Hermandadeko arkupean elkartu ziren, eta Txistularien Banda eta arraunlarien atzetik prozesioan etxebizitza berrietara joan ziren.

Han jarrita zegoen taulatu baten aurrean, Francisco de Sagarzazu alkatea, Carlos Olaskoaga Abad Nagusia eta Jose Garnica Gipuzkoako Itsas Indarren komandantea bildu ziren. Haiengandik hurbil, Carlos Picasarri apaiz jauna, eta beste hainbat autoritate, horien artean Manuel Manzano-Monis arkitektoa, Kofradiako mediku eta alkateordea zen Jose Luis Gamarra, eta Pedro Lapitz Kofradiako idazkaria ikus zitezkeelarik.

Zazpi milioi pezeta

Obra osoaren kostua zazpi milioi pezetakoa izan zen, eta pape-retan argi uzten da ordainketa arrantzaleek beraiek egin beharko dutela, hilero ordaindu beharreko alokairuekin. Etxe hauek egiteko lehen urratsak 1951. urtean eman ziren, eta zazpi urte geroago ikusi zuten argia. Hala ere, hau, orduko Hondarribian eta gizartean normaltzat jo zitekeen.

Sagarzazu alkateak egitasmo asko zituen bere herriarentzat. Bi aldiz izan zen alkate, bata Gerra Zibila aurretik eta bestea ondoren. Lehen garaian proiektu erraldoiak aurreikusi ziren, gero gerrak eta ekarri zituen ondorioek bertan behera utzi zituztelarik.

Datozen aste edo hileotan, gure hiri erdigunean daukagun etxebizitza historiko hauek desagertu egingo dira. Hala ere, etorkizunaren alde egin beharreko apustua da eta ziur bertan joango diren etxebizitza berriak ederrak eta dauden ingurunearekin errespetua mantenduko dutela.



1958ko 'Ondarribi' aldizkariak ekitaldiaren berri eman zuen

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA



jatebtxea • restaurante
errotegia • asador
Itsasargi 6 • 20280 • hondarribia
tel. fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es



Santa Engraziako ermita birgaitu egin da

Santa Engraziko basiliza zaharra azaroaren erdialdera bedeinkatu zuten, 70.527 euroko aurrekontua izan duten zaharberritze lanak egin ostean. Lanak Hondarribiako Historiaren Lagunen Elkartek, Udalak eta Elizak bultzatu dituzte. Ekitaldian, 50 lagun inguru bildu ziren, Aitor Kerejeta alkatea eta beste zenbait udal arduradunekin batera. Bedeinkapena Don Martin Iturbek egin zuen.

Birgaitze lanak maiatzean hasi ziren, teilatua, fatxada eta barneko aldea egokitu direlarik. Obrak Udalaren ekarpen ekonomikoari esker ari da burutzen egunotan, Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizako Parrokoak dirulaguntza eskatu zuen aurkezturiko eskaera onartu eta gero.



Azaroaren erdialdera egin zen ermita berriaren irekiera ofiziala

Basiliza honi buruzko lehen erreferentzia 1544 urte-



koa da. Hala ere ez dago oso argi noizkoa den. Esan beharrik ez dago, auzoko fededunentzat oso berezia den basiliza bat dela, eta XX. mendeko 50. hamarkada arte hondamendi natural bat gertatzen zenean, lehorte, uholde edota uzta galtze bat kasu, bertara hurbiltzen zirela bizilagunak Amabirjinari laguntza eske.

Urtean zehar bi meza egiten ziren bertan. Bata maiatzaren 15ean, San Isidro eguna, eta bestea, abuztuaren 8an, Graziako Amaren eguna dela eta.

Don Martin Iturbe apaizak hitz ederrak esan zituen ermitaren inguruan

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva Ionia - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba



Gabon txapelketa hilaren 26tik 28ra burutuko da

Saindua Gaztelekuak eta Prebentzio Komunitarioko Udal Zerbitzuak Gabonetako Txapelketa antolatu dute. Ekimena abenduaren 26tik 28ra ospatuko da eta hamabi eta hamasei urteko neska-mutilei zuzendurik doa.

Txapelketa honetan parte hartzeko sei lagun osaturiko talde mistoa (hiru neska eta hiru mutil) beharrezkoa da. Gainera, aurkezten diren frogak guztietan parte-hartzea derrigorrezkoa izango da. Honen bidez, taldekide baten hutsunea betetzeaz taldeak arduratuko da antolatzaileei aldaketaren berri emanez.

Talde bakoitzak bere taldea bereiztuko duen osagarri bat eraman beharko du txapelketa osoan zehar.

Norgehiagokak goizez 10.00etatik 13.00etara eta arratsalde 17.00etatik 21.00ak arte jokatu dira. Aurreneko egunean goizean Futbol 5 txapelketaren aurkezpena egingo da eta arratsaldean Mihiluze ETBko lehiaketaren saioko frogak.

Biharamunean taldeek beraien indarrak neurtuko dituzte goizaldean zehar herri kiroltako hainbat modalitatean parte hartuz. Bazkaldu ostean beste frogak mota ezberdinei aurre egin behar izango dituzte, hau da, dardoak, futbolina, Conecta 4 eta Play Station 2.

Azkeneko egunean goizean 3x3 saskibaloia txapelketa jokatu dute. Arratsaldean Gabon Txapelketari amaiera emango zaio



Saindua Gaztelekutik txapelketarako irudia izango zen lehiaketa antolatu zen. Lan ugari aurkeztu zen bertara, irudian ikus daitekeen bezala

sari banaketa eta jaialdi baten bidez. Garaileek eta bigarren saria eskuratzen dutenek garaikurra eta Gaztelekuan antolatutako ekintza batean doan abiatzeko txartelak eskuratuko dituzte.

Izena emateko epea Saindua Gaztelekuan hilak 19 arte zabalik egongo da arratsalde 17.30etatik 21.00etara). Telefonoa: 943643198.

Kartelaren egileak

Martin Unzueta eta Erik Gonzalez izan dira aipaturiko txapelketa honen inguruan deitu zen kartel lehiaketaren garaileak.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA



Eguberrietako haur parkea Ficoban zabaldu da

Aurreko ediziotan izandako arrakastaren ondorioz, berriz ere FICOBAn antolatuko da 8.000 metro karratu izango dituen gabonetako haur parkea. 'Jolasen bidez ikastea' da lema. Horrexegatik jarduera gehienek heziketa kutsu garrantzitsua izango dute haur-errentzako nahiz gurasoentzako.

Jolas-jarduerak eta heziketa-jarduerak adinen arabera sailkatu egongo dira, lau taldetan:

- . 3 urtetik 5 urtera
- . 6 urtetik 9 urtera
- . 10 urtetik aurrera
- . Gurasoak eta helduak orokorrean

FICOBAn osoa eguberriz jantziko da. Jarduera trinkoak nahiz puntualak eskainiko dira. Adin ezberdineko haurrak ez nahastearren, jarduerak multzo edo gunek bakoitza adin jakin bateko haurrei zuzenduta egongo da. Jarduera trinkoak eta aldizkakoak egongo dira. Jarduera gehienak hiru pabilioietan banatuko dira. Adibidez: Ludotekak, puzgarri erraldoiak, talka autoak, bideo-jokoak, ordenagailuak, eskulanak, bizikleta zirkuitua, ohe elastikoak, mahai tenisa...etab.

Aldizkako jarduerak egunaren araberakoak izango dira, hauek egunero egitarauan, egunkarian edo eta Ficoban bertan begira ditzakezue. Adibidez: haur diskoteka, kalejirak, karaokea, magoak...etab

3 erakusketa pabilioi, 2 erabilera ani-



Hondarribiar asko joaten da Ficobara eguberrietako parkean dauden jardueretaz goatzera



Denetatik egin daiteke bailarako Eguberrietako Parkean

tzeko areto, areto nagusi 1, atondoa eta pabilioiak bateratzen dituen korridore zentrala egongo da eguberrietan jolasten ikasteko.

Datak eta ordutegiak:

Abenduaren 18a, 19a eta 20a, goizeko 10etatik arratsaldeko 3ak arte, ikastetxeentzako soilik irekiko dugu. Jardueran parte hartzeko alde aurretik erreserba egitea derrigorrezkoa izango da.

Abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra jende guztiarentzako irekiko dugu: eguerdiko 3etatik arratsaldeko 8ak arte.

(Abenduaren 21ean, 24ean, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da)

Sarrera:

Banakako parte-hartzea: Haurrak (14 urtetik behera) 7€ / Helduak 4€

Taldeak*: 4€ haur bakoitzeko

*15 haurretik gora eta arduradun baten laguntzarekin (Gehienez heldu bat 5 umeke)

Abenduaren 18ean, 19an eta 20an (Ikastetxeen egun bereziak) 4€ haur bakoitzeko. Irakasleak doan. Beharrezkoa da alde aurreko erreserba egitea. Nahiz telefonoz nahiz emailaz jarri zaitezke gurekin harremanetan.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean



Haur oihal ekologikoak, etorkizunaren alde

XX.mendeko 70 eta 80. urteetan, haur-oihal edo pañalek sekulako boom bat izan zuten. Orduz geroztik, milioika egin dira mundu osoan, eta gaur egun, gure planetak gehiegikeri guztiak bezala, orduan eta urte guzti hauetan egindakoak, ordaintzen ari da bide saria. Hori dela eta, gero eta ama gehiagok erosten ditu haur-oihal ekologikoak.

Baina zeintzuk dira abantailak:

- Haur bakoitzeko 10 zuhaitz salbatzen dira
- Zabor toxikoen milaka tona ekiditen dira
- Dirua aurrezten da



Erabiltzeko oso errazak dira eta makinaz garbi daitezke. Biodegradable den paper batekin haurrak gorputzetik atera duena jasotzen du eta oihala garbito egiten da berriz ere erabiltzeko. Aldiz, munduan erabiltzen diren haur-oihalak ezin dira berriz erabili, eta horregatik sortzen diren zabor tonak ikaragarriak dira.

Informazio gehiago nahi duenak, www.bebesecologicos.com webgunean begiratu dezake. Gero eta jende gehiagok erabiltzen du sistema hau. Naturak eta etorkizunak eskertuko digun zerbait da.



- SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €
2+1 dohainik eta 7+5 dohainik
- ECO-SALIN fruitu marmelada 325 gr: 3,68 €
1+1 dohainik
- LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrrrik gabe
1l: 3,65 €
1+1 dohainik eta 6+7 dohainik
- ECO-SALIN berde olibak 140 gr: 1,35 €
2+1 dohainik eta 3+3 dohainik
- BIOCOP intxaurreak 300 gr: 5,35 €
%50 unitate
- RAPUNZEL txokolate-intxaurreak, olo muesli
350 gr: 5,40 €
1 + 1 dohainik
- SOLE LUNA almendra pelatuak: 2,65 €
1 + 1 dohainik
- SANITURI soja flan 250 gr: 2,30 €
3 + 1 dohainik eta 4+2 dohainik
- Zereal-soja, banilla eta txokolate postre 500 gr:
3,95 €
3 + 1 dohainik
Arreta pertsonala

¡En HondarriBIO!

txuntxumela
tu pequeño **SUPER BIO**

SERVICIO A DOMICILIO
HENDAIA-HONDARRIBIA-IRUN

☎ 943 641450

Santiago kalea, 33. Hondarribia

✉ biotxuntxu@terra.es



EUSKAL LIBURUAK EROSTeko AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituen.


Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idaz- kera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Daniel.

nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrek. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolako zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotasuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramanean zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko.

Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriz, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiaren frankismoa arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzaz

izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidakarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburua bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburua bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko.

Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekoa eta hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerriaren dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose Ramon Gebara eta

Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



Beste jarduerak...

GIPUZKOAKO DYAK BOLONDRESEN BILA DABIL

Bolondresak behar dira Gipuzkoako DYArako.
Informazio gehiago Gipuzkoako DYAn:



Mendigain, 30. 20014 DONOSTIA
Tfnoa.: 943 464622
info@dyagipuzkoa.com
http://www.dyagipuzkoa.com

Baina herrian bertan bulego bat duzu:
Soroetagain 6/7-behea
Tel: 943640035
bidasoa@DYAgipuzkoa.com

NOAOA PROGRAMARAKO PUBLIKOA BEHAR DA

Noaoa programarako (wazemank ohia) publikoa bilatzen ari dira.

-Baldintzak: euskaldun eta adin nagusiko jendea behar da.

-NOIZ? Astearteetan grabatzen da Donostiako miramonen, autobus bat egongo litzateke jendearen bila joateko eta bueltatzeko.

-55 pertsonako taldeari 600 euro emango zaio.

Gabonetarako programa espeziala ere grabatuko dute, abenduaren 21ean.

Interesatzen bazaizu deitu telefono hauetara:

943 011754/688 649933 (Jone).
Noaoa@eitb.com

GAZTE KARNETEN DESKONTU BERRIAK!!

-**Gaztekutxa** karneta baduzu, Ikasle Karneta ateratzekoan 3 Euro merkeago lortuko duzu.

-**Gazte-Txartela** baldin badaukazu, Guggenheimeko sarreretan %50a aurreztuko duzu.



eukeni
optika

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitze
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI

nire betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA - BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia



Nola izena du etxe honek ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Zerbitzuan jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela garbi dago. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Azaroko alean jarritako galderari ia 50 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **M^a Jose Zubillaga Olaskoaga**. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den zubiak San Nikolas izena du. Bigarren saria, eta ondorioz, liburu sorta bat, **Clara Oronoz**-ek irabazi du.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Baserritar etorbidean dagoen etxe bat da, historia berezia duena gainera. Ez da batere galdera zaila orain egiten dizueguna. Zein da etxea honen izena?

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Zerbitzura, urtarilaren 8a aurretik.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**



eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia



Lonja zaharraren irudi bat



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, Hondarribia 800 ospakizunaren inguruan Lankide Aurrezkiak eta Udalak argitaratu zuten liburura jo dugu irudi bila. 109. orrialdean topatu dugu argazki eder hau. Gaur egun oraindik ere Lonja bezala ezagutzen dugu inguru hau, Puntal auzoan kokatzen dena.

Aintzinean arrantzaleen lonja hau zen, eta urte askotan bete zuen funtzio hau. Denborarekin bota egin zen eta aurretik zuen itxura errespetatuz eraiki zen berriz, oraingoan etxebizitza bezala. Orain bertatik igarotzen bagara, eraikin berria egiten ari direla ikusiko dugu.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzuenok, Udal Euskara Zerbitzura eramatea besterik ez duzue.



ahindegia • gazategia




kafetegia



San
20280 I
T

0
4
5

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656



M.A.G.
ASESORIA AGINAGALDE

GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGURUOK



Azaroa2007

JAIOTZAK URRIAN

- 1ean:** SARA Perez Roman, Irungo Francisco Javier eta Irungo Silviaren alaba.
- 2an:** IMANOL Kanpandegi Arretxe, Hondarribiko Samuel Lorenzo eta Hondarribiko Estibalizen semea.
- 5ean:** IPAR Amunarriz Iridoi, Hondarribiko Jesus eta Hondarribiko Ainhoaren semea.
- 6an:** LANDER Gutierrez Olazabal, Hondarribiko Jose Antonio eta Gasteizko Maideren semea.
- 10an:** MARTXEL Diaz Castro, Hondarribiko Roberto eta Donostiako Cristinaren semea.
- 14an:** ANE Zapirain Hernandez, Irungo Moises eta Bartzelonako Monicaren alaba.
- 15ean:** JOXE Etxebeste Gonzalez, Donostiako Jose Luis eta Ferroleko (A Coruña) Beatrizen semea.
- 21ean:** MARI Sanz Martinez, Hondarribiko Erlaitz eta Hondarribiko Sararen alaba.
- 22an:** MALEN Zuzia Ceberio, Hondarribiko Iosu eta Hondarribiko Ainhoaren alaba.
- 23an:** SARA Aristegui Quesada, Donostiako Alberto eta Maria Aliciaren alaba.



EZKONTZAK URRIAN

- 3an:** MANUEL JOSE Perez Lanchas, Irungoa, eta LEIRE Iztueta Apeztegia, Donostiakoa.
- 3an:** OSCAR Prieto Sordo, Donostiakoa, eta CRISTINA de Prada Rodriguez, Erreterriakoa.
- 10an:** GUSTAVO Perez Parrizas, Donostiakoa, eta AINHOA Llorente Bustamante, Hondarribikoa.
- 17an:** LOHITZUN Gojenola Sagarazu, Hondarribikoa, eta MIREN Alza Gonzalez, Hondarribikoa.
- 17an:** IGOR Olazabal Carrio, Irungoa, eta JASONE Azpitarte Goñi, Durangokoa.
- 24an:** CHRISTOPHER WARD Thomas, Mornington-koa (Australia), eta ANA Melero Martinez, Iruñakoa.



HERIOTZAK URRIAN

- 1ean:** MARIA ANGELES Ibañez Martin, Donostiakoa, 54 urte, Mendelun.
- 4an:** AMPARO Festa Cayuela, Hondarribikoa, 52 urte, Getxon.
- 10an:** ANTOINETTE Gonzalez Goñi, Hondarribikoa, 72 urte, San Pedro kalean.
- 16an:** ANGEL Genua Kukullo, Hondarribikoa, 75 urte, Irunen.
- 16an:** RUFINA Bandres Jauregi, Hondarribikoa, 85 urte, Almirante Alonso kalean.
- 16an:** MARIA del CARMEN Guri Farre, Valls-ekoa (Tarragona), 87 urte, Mendelu kalean.
- 16an:** MARIA JOSE Olaizola Errazkin, Irungoa, 74 urte, San Gabriel egoitzan.
- 17an:** IGNACIA Barrio Munita, Tolosakoa, 71 urte, Almirante Alonso kalean.
- 22an:** ASUNCION Alzaga Martiarena, Hondarribikoa, 87 urte, Gabarrari kalean.
- 29an:** MARIA Txurruka Vivanco, Donostiakoa, 90 urte, Almirante Alonso kalean.
- 30an:** JOSE LUIS Sanchez Juarez, Perelada de la Mata-koa (Caceres), 54 urte, Gibeletan.





Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

**AZAROAKO EGURALDIAREN DATUAK.
(Hondarribiko aireportutik jasoak).**

Temperaturarik gorena:	20,0° C, hilaren 20an.
Temperaturarik beherena:	-2,6° C, hilaren 18an.
Bataz besteko tenperatura:	9,6° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 77.
Euri-litroen kopurua:	47,0 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 14an 17,6 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 14ko 5,00etan, 25,2 litro/orduko.
Egun euritsuak:	9 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	egun 1
Ekaitz egunak:	0 egun
Behe-laino egunak:	egun 2
Ihintz egunak:	11 egun
Zeru oskarbi:	7 egun
Zeru lainotua:	10 egun
Zeru iluna:	13 egun
Eguzki kopurua:	95,5 ordu
Bataz besteko presioa:	1022,0 milibar
Presiorik gorena:	1033,4 milibar, hilaren 6an
Presiorik beherena:	996,4 milibar, hilaren 20an
Haizea >55 Km/ord.	egun 2
Haizerik indartsuena:	hilaren 20ko 00,19tan, 78 Km/orduko.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK AZAROAN

Altak: Jaiotzak: 10, eta kanpotik etorriak: 39
Bajak: Hildakoak: 11, eta herriatik joanak: 28
Biztanle kopuru orokorra: 16.430 bizilagun.

AZAROAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 512 euskaraz, 1411 gaztelaniaz eta 29 beste-lakoak. Guztira: 1952 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 16 euskaraz, 88 gaztelaniaz eta 12 beste-lakoak. Guztira: 116 liburu.

Bazkide berriak: 20 gizon eta 26 emakume. Horietatik 28 heldu eta 18 haur. Guztira 46.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: Euskeraz: Plisti eta plastaren ipuinak.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ, F. - Mortadelo y Filemon.- Ediciones B..

Helduak: Euskeraz: SWINDELLS.-Kale gorrian.- Elkar

Gaztelaniaz: BOYNE, John.- El niño del pijama a rayas.- Salamandra.

mandragora studio

t. 943 644 639 m. 629 564 723
 unal.mandragorastudio.com
 www.mandragorastudio.com
 matin de arzu 14 20280 hondarribia



Higer Bidea, nº 6 - 20280 Hondarribia
 Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
 www.arrokaberri.com



Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrot.com



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún